



Kulturako laguntza publikoen gizarte- itzuleraren ebaluazioa

2012ko ABENDUA





Kulturako laguntza publikoen gizarte- itzuleraren ebaluazioa

2012ko ABENDUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2013ko otsaila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Lege gordailua: VI 31-2013



AURKIBIDEA

SARRERA	5
1. Kultura-politikak: kulturaren gizarte-itzulera edo balio publikoa	6
2. Diru-laguntzak: politiken tresnak	10
3. Laguntza publikoen gizarte-itzulera	11
4. Kultura-proiektuen gizarte-itzulera ebaluatzeko eredua	13
4.1. Ebaluazioa proiektuen aurretik eta ondoren	13
4.2. Proiektuak ebaluatzean erabili beharreko parametroak: gizarte-itzuleraren faktoreak	14
4.3. Kultura-proiektuen gizarte-itzulera neurtzeko adierazleen proposamena	18
5. Laguntza publikoetan eredua aplikatzeko gomendioak	25
5.1. Laguntza publikoen ebaluazio globalean gizarte-itzuleraren faktoreek duten garrantzia	25
5.2. Eredua laguntza publikoen ebaluazioan aplikatzeko faseak	25



SARRERA

Kulturako politikek funtsezko eginkizuna dute jakintzaren ekonomia gizarte-kohesioarekin, gobernantzarekin eta jasangarritasunarekin uztartu nahi duen lurralde-garapenean. Ohiko ebaluazio-sistemek, ordea, kulturak sortzen dituen kontsumoan eta kanpo-eraginetan bakarrik oinarritutako irizpideak baino ez dituzte aplikatzen, neurri horien gizarte-ingurunearen gaineko informazioa ematen duten tresnei tarterik utzi gabe.

Bada teorian nolabaiteko adostasun bat; alegia, kultur ekintzak ondorio positiboak dituela herritarren bizi-kalitatean, bai eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapena laguntzen duela ere. Adostasunak adostasun, oso urrats apalak egin dira eragin edo ondorio horiek adierazleen bitartez baieztatzeko metodo eraginkorrak lortzeko.

Txosten honetan hainbat adierazle zehaztu ditugu kulturaren alorreko diru-laguntzei eta laguntza publikoei dagokienez neurketa hori sistematizatu ahal izateko, betiere kulturaren balio publikoa eta herritarrei dakartzkien onurak neurtzeko orduan kontuan hartu beharreko irizpideak eta aldagaiak eta haien diseinua abiapuntutzat hartuta.

Txosten hau dimentsio hori kultura-proiektuen balorazioan txertatzeko lehen urratsa da, bai eta, neurri handi batean, Euskal Autonomia Erkidegoan laguntza publikoa eskura dezaketen proiektuen babes-eskaerak ebaluatzeko erabilitako irizpideetan sartzeko ere.

Gizarte-itzulerako adierazleen proposamen batean oinarrituko gara eredia zehazteko; adierazle horiek aztertu beharra dago, proiektuak baloratzeko orduan erabiltzeko egokiak balira ere. Eredua garatzeko orduan aintzat hartu beharreko alderdi guztiak jaso ditugu, ondoren, eredia praktikan jarri behar dugunean, adierazleak premien arabera, aukeratu, neurtu eta konbinatu ahal izateko.

1.

Kultura-politikak: kulturaren gizarte-itzulera edo balio publikoa

Kultura-politikak: orientabideak eta dimentsioak

Ez dago kultura-politikaren definizio bakar bat. George Yudice eta Toby Miller irakasleen iritziz, kultura-politika «sormen estetiko eta bizimodu kolektiboak bideratzen dituzten babes instituzionala» da, eta «erregulatzeko jarraibide sistematikoetan dago». Néstor García Canclín, berriz, definizio hau ematen du: «Estatuak, erakunde zibilek eta komunitate-talde antolatuek egindako interbentzioak, xedetzat garapen sinbolikoa orientatzea, herritarren kultur beharrak asetzea eta ordena edo eraldaketa sozial mota baterako adostasuna lortzea dutenak».

Definizioetatik harago, argi dago edozein ekintza publikoren atzean helburu eta xede jakin batzuk dituen asmo politikoa dagoela. Horrela bada, helburu jakin batzuei erreparatzen badiegu, kultura-politiken hainbat tipologia finkatu ahal izango ditugu. Hala, balizko sailkapen batek bost politika mota zehazten ditu; ez dira elkarren aurkakoak, aitzitik, osagarriak izaten dira askotan:

- Nortasun-politikak: lurralde jakin bateko kultura zaintzeko eta zabaltzekoak. Oro har, kultura tradizionalerako adierazpenak, herri-kutsukoak, folklorea, ondarea zaintzea eta nortasun-sentipena sustatzen duten jarduerak dituzte xede.
- Kultura demokratizatzeke politikak: herritar guztien kulturarako sarbidea bermatzeko helburua dute.
- Kultura-demokraziako politikak: herritarren sormen-gaitasuna edo -adierazpena sustatzea dute helburutzat. Ideia hau dute oinarrian: pertsona guztiek sormen-gaitasun hori dute, eta beharrezko baldintzak jarri behar dira azalera dadin.
- Kultura-bikaintasunerako politikak: kalitatezko kultur produktuak, proiektzio-bokazioa dutenak, sustatzekoak. Finkatuta dauden kultura-adierazpenak laguntzea izaten dute xedetzat.
- Kanpo-eraginak dituzten kultura-politikak: kultura-politikaren esparrutik beste esparru edo sektore batzuen erronkei erantzun dakieke, hala nola garapen ekonomikoari edo gizarte-kohesioari.



Horrenbestez, kultura-politikak, dituzten helburuen arabera sailkatzen baditugu, haien ebaluazioa egin ahal izango dugu, helburuak zehaztuz eta horien lorpena aztertuz. Hala ere, kultura-politikaren kontzeptuak berak bilakaera izan du haren balio publikoa sendotu ahala. Hortaz, kultura-ekintza aztertzeko eta ebaluatzeko eruedetarantz aurrera egingo badugu, kulturaren onura kolektiboak eta zeharkakoak aitortzen dituen ikuspegi berri hori hartu behar dugu kontuan: gizarte-itzulera.

Begirada berri bat: kulturaren balio publikoa

Kultura-politiken ebaluazioa eta haren gizarte-itzuleraren azterketa 1980ko hamarkadatik garatu eta sendotu izan dira eta, denboran zehar, hainbat ikuspegi teoriko agertu izan dira, bakoitza bere kutsuarekin. Literatura espezializatuan ageri diren joerak bi eredu teoriko handitan sailka daitezke: batetik, kultura-politikaren kanpo-eragin positiboak nabarmentzen dituzten teoriak eta, bestetik, kulturaren balio publikoa nabarmentzen dutenak.

Lehen taldean, kultura-politikek gizarteak garatzeko elementu gisa duten balioa nabarmendu dute egindako azterketek. Azterketa horiek kulturaren kanpo-eraginetan oinarritzen dira, sektorekako beste politika publiko batzuen helburuen garapena laguntzeko duten balizko ahalmena nabarmenduta: hezkuntza, ingurumena, segurtasuna, hirigintza, eta abar (Subirats eta beste hainbat: 2008). Hurbilketa horietan kulturako ekintzaren eta politikaren begirada instrumentala dago eta, gehienbat, haren legitimazioa bilatzen dute (hau da, aurrekontu publikoetan duen garrantzia) kulturak lehentasunezko helburuak lortzeko duen garrantzia nabarmenduta. Nolanahi ere, ikuspegi horiek, inplizituki, kultura-ekintzak berez garrantzi eskasa duela onartzen dute.

Ingalaterrako gobernu laboristaren garaian bultzatu zen gehien kulturaren gizarte-itzuleraren ikuspegi utilitarista hori. Orduko laborismo berriaren diskurtsoak nabarmendu zuen kulturako gastua inbertsioztat hartu behar zela. Horrenbestez, kulturako proiektuen balioa ez zen proiektua bera, baizik eta horretatik etor zitezkeen itzulera ekonomikoa eta soziala, bai eta horietatik lor zitezkeen beste onura osagarri batzuk ere.

Kanpo-eraginetan oinarrituriko begirada horrek presio erantsia ekarri die kultur proiektu askori, beste arlo politiko batzuen lehentasunei erantzutean eta haien helburuak lortzean jarri baitute arreta (Belfiore: 2006).

Kultura-politiken kanpo-eraginen dimentsio sozialaren ikuspegitik, arreta teorikoak eta hurbilketa praktikoez hiru arlo izaten dituzte jomuga: gizartearena, ingurumenarena eta



osasanarena. Liburu ugariak kultura-politiken eta hiru arlo horien arteko harremana aztertzen dute, kanpo-eraginak sortzearen ideia indartuta¹.

Bigarren joera teorikoak kulturaren balio publikoaren barruko azterketak hobesten ditu (Holden: 2004); haren erabilera instrumentala baztertzen du, eta kulturari lotutako elementu eraginkorrak, ukiezinak eta esperientziakoak identifikatu eta aztertu beharra defendatzen du. Ikuspegi horrek ez du ukatzen kulturaren eragina neurtzen duten datu kuantitatiboak biltzea garrantzitsua dela, baina, aldi berean, kultura berez baloratzeko mekanismoak ezartzea hobesten du, ezinbestean politika publikoen edo errealitate ekonomiko eta sozialaren beste esparru batzuei lotuta egon beharrik gabe.

Azterketa-ildo horrek defendatzen du kultura herritarrei onurak sorrarazten dizkien ondasun publikoa dela; ondorioz, lorturiko gizarte-itzulerak kanpo-eragina gaitzen du, eta kultura-ekintzaren osagai nuklear bihurtzen da. Izan ere, kultura-politiken gizarte-itzulerari egindako begirada aurrekotik bereizten da balio publikoan jartzen duelako arretagunea eta ez haren eraginean; hala, kultura-politiken onuren zeharkako elementuak identifikatzen ditu, ez haien kanpo-eraginak edo gaitasun instrumentalak.

Begirada horren arloan sartzen diren liburu espezializatuak (Subirats eta beste hainbat: 2008) eta azterlanak aztertuz gero, kultura-politikek gizarte osoarentzat onurak eta eraginak dituzten bederatzi ardatz edo esparru zehaztu ahal izango ditugu:

- Nortasun eta moral kolektiboa.
- Gizarte-kapitala (I): gizarte-kohesioa.
- Gizarte-kapitala (II): herritarren parte-hartzea eta ekintza kolektiboa.
- Gatazka ezagutzea eta kudeatzea.
- «Klase ez-emankorren» balioa handitzea.
- Pertsonen garapen autonomia eta sormenaren sustapena.
- Hiri-espazioa eraldatzea.
- Zentraltasun berriak.
- Paisaia berrinterpretatzea.

¹ Txosten honetan ez ditugu liburu horiek aztertu. Horretarako, Subirats eta bestek *El retorno social de las políticas culturales* azterlanean egindako azterketa gomendatzen da.

Txosten honek kultura-proiektuen gizarte-itzulera ebaluatzen duten adierazle-proposamen bat zehaztea du helburutzat, betiere kulturako jarduerari eta adierazpenei lotutako eraginak eta elementu ukiezinak kontuan hartuta. Lan zaila da, neurtzea eta ukiezintasuna edo esperientzia ez baitira normalean elkarrekin agertzen; horrenbestez, lehen proposamen honek oinarria izan behar du etorkizunean garapen sakonagoa eta praktikoagoa egin dadin. Horrela bada, kulturaren balio publikoa neurtzea ahalbidetzen duen bidea hastea da asmoa; azken batean, kultura-jarduerak herritarrei, oro har, sorrarazten dizkien onurak identifikatzeko modu bat bilatzea.

2. Diru-laguntzak: politika publikoen tresna

Administrazioek gizarteko eragile pribatuei diru-laguntzak eta laguntza publikoak ematen dizkiete, diruz lagundutako jarduerak interes publikoa duela iritzita; hau da, herritarrei eta gizarteari onurak dakarziela. Diru-laguntzak jaso beharreko arloak eta sektoreak aukeratzeko edo horiek emateko irizpideak finkatzeko orduan, hala ere, helburu jakin batzuk dituzte gogoan. Diru-laguntzak, beraz, administrazio publikoek politikak gauzatzeko dituzten tresnak dira; horretarako, eginkizun publikoa garatzeko ezarritako helburuekin bat datozen eragileak eta ekintzak babesten dituzte. Izan ere, diru-laguntzak administrazioak esku hartzeko teknika bat dira, batez ere esparru jakin batzuk sustatzea eta bultzatzea bilatzen dutenak.

Eragile eta kultura-sektoreentzako diru-laguntzak eta laguntzak funtsezko tresna dira kulturako politikak garatzeko orduan. Administrazio askok kulturara zuzendutako aurrekontu publikoetan diru-laguntzen partidek garrantzi handia izaten dute askotan, eginkizun publikoan duten zentraltasunaren erakusle. Hortaz, era horretako tresnen bidez kultura sustatzera bideratutako baliabideak asko direnez, administrazioek koherentzia bermatu behar dute diru-laguntzen eta politiken bitartez bilatzen dituzten helburuen artean.

Nolanahi ere, diru-laguntzak modu espezifiko batez erabili beharko lirateke kultura-arloan: sustatzeko politikak garatzeko erabiltzeaz gain, funtsezkoak ere badira kulturako sektoreak mantentzeko eta sostengatzeko. Horrela bada, administrazioek berezko helburutzat hartzen dute kulturako eragileen biziraupena eta dinamizazioa.

Diru-laguntzen instrumentaltasuna onartuta, diruz lagundutako kultura-proiektuek administrazioen helburu politikoen arloan lortu dituzten emaitzak azertu beharra dago kultura-politiken eragina ebaluatzeko. Txosten honen bitartez kultura-politiken gizarte-itzulera ebaluatu nahi dugu, horretarako kultura-jarduerak herritarrei eta gizarteari dakarzkien ondorio positiboak zeharka begiratuta. Horrenbestez, beste eredu bat zehaztu beharra dago kultura-politikak eta haien tresna nagusiak, diru-laguntzak, ebaluatzean gizarte-itzuleraren alderdiak azertu ahal izateko, abiapuntutzat kulturaren balio politikoaren esanahi berri bat hartuta.

3. Laguntza publikoen gizarte-itzulera

Laguntza publikoen ebaluazioan gizarte-itzuleraren dimentsioa aplikatzea berria da eta, oraingoz, kulturaren balio publikoan oinarritutako ikuspegi hau ez da kontuan hartzen diru-laguntzak edo beste laguntza publiko batzuk emateko eta ebaluatzeko garaian. Bide hasiberria da, beraz; horregatik, analisi-eredu bat pixkanaka garatu behar da ebaluazio-kulturan eragin aurreikusien edo errealen dimentsio berri bat txertatzen joateko.

Hala, erronka horren aurrean, egokia dirudi nolabaiteko zuhurtziaz eta aldika jardutea. Horregatik, pixkanaka txertatzea planteatu nahi dugu, batez ere egun baloratzeko egitura eta mekanismo sendoak dituzten proiektuei dagokienez: kulturaren sektorerako laguntza publikoak.

Jardun-eremua era horretako proiektuetara mugatzea lehen urrats bat da dimentsio hori txertatzeko; hala, denborarekin eta azterketa-prozesu zorrotza eginda, administrazioen berezko programetara eta kulturako edozein proiektu motatarara hedatu ahal izango da.

Printzipio hauen arabera zuzendu behar da laguntza publikoak jasotzen dituzten kultura-proiektuak baloratzeko gizarte-itzulera txertatzeko prozesua:

Egokiera

Azterketa hori proiekturik egokienetan sartu behar da, gutxienez hasieran, proiektuak ebaluatzeko orduan. Hots, bukatu ondoren ondorioak ateratzea ahalbidetzen duten horietan, etorkizuneko proiektuak berrorientatu eta baloratu ahal izateko.

Zuhurtzia

Ebaluazio-parametro berri batzuei heldu behar zaie proiektuen gizarte-itzulerari buruzko begirada bat aplikatzeko. Hori dela eta, komeni da, hasieran, xede horretako ereduak ondorioak ateratzea ahalbidetu dezaten; horiek zuhurtziaz hartu behar dira, eta egiaztatu, ereduak egonkortu eta begirada analitiko horretan esperientzia hartu ahala.

Progresibitatea

Kultura-erakunde bateko ebaluazio-moduan dimentsio hori sartzeko mailakako prozesu planifikatu bati jarraitu behar zaio. Eredua saiatzeko, doitzeko, hobetzeko eta zehazteko denbora eman behar da eredu teorikotik sistema hori txertatu arte.

Praktikotasuna

Datuetara jotzeko aukera edo balorazioak lortzeko erraztasuna garrantzitsua da oso, bai ereduaren diseinuan bai aplikazioan, eta kontuan hartu beharra dago ereduaren inplementatu ahal izateko.

4. Kultura-proiektuen gizarte-itzulera ebaluatzeko eredua

Txosten honetan proposamen teoriko-praktiko bat egin dugu gizarte-itzulera diru-laguntzen eta jasotzen dituzten kultura-proiektuen ebaluazioan txertatzeko; proposamenak aztertutako joera guztien osagaiak biltzen ditu, eredu osoa, garaikidea eta garatzeko modukoa lortzeko.

4.1. Ebaluazioa proiektuen aurretik eta ondoren

Txosten honetan proposamen teoriko-praktiko bat egin dugu gizarte-itzulera diru-laguntzen eta jasotzen dituzten kultura-proiektuen ebaluazioan txertatzeko; proposamenak aztertutako joera guztien osagaiak biltzen ditu, eredu osoa, garaikidea eta garatzeko modukoa lortzeko:

- **Proiektuak gauzatu aurreko ebaluazioak**

Proiektuen definizioari, diseinuari eta helburuei buruzko ebaluazioak dira. Era horretako ebaluazioak, gehienbat, diru-laguntza publikoak esleitu aurretiko momentuan egiten dira; orduan garatu beharreko proiektu-proposamenaren berri baino ez du ebaluatzaileak. Ebaluazio horiek konfiantza dute proiektuaren arduradunak azaldu bezala garatu behar duela berau. Batzuetan eragileen ibilbideari lotutako osagaiak daude ebaluazio-irizpideetan, era horretan konpromiso-adierazpenean bakarrik oinarritutako ebaluazio baten arriskuak mugatzeko. Era horretako ebaluazioen oinarritzko galdera hau da: zer egin behar da?

- **Proiektuak gauzatu ondorengo ebaluazioak**

Kultura-proiektuek lortutako emaitzen gaineko ebaluazioak dira. Haien eraginak, izandako ondorioak, egindako kudeaketa... Era horretako ebaluazioak edozein kultura-proiektutan egin daitezke eta, batzuetan, diru-laguntzen irizpideetan ere jasotzen dira. Ebaluazioa beharrezkoa da proiektuak hobetzen jarraitzeko, batez ere denboran finkatu direnei dagokienez. Ebaluazio horrek galdera honi erantzuten dio: Zer eragin izan du egindakoak?

- **Proiektuen koherentziari buruzko ebaluazioak**

Beste ebaluazio mota batek proiektuen koherentzia hartzen du kontuan. Proiektuaren diseinuan proposatuaren, egindakoaren eta izandako eraginaren arteko harremana aztertzen du. Ebaluazio horrek bi galdera motari erantzuten die: Aurreikusitakoa egin al da? Aurreikusitako eragina izan al du proiektuak?

Kultura-proiektuen gizarte-itxuleraren ebaluazioa tipologia horietako bakoitzean egin daiteke. Diru-laguntza publikoei dagokionez, kasu gehienetan, ebaluazioak proiektua garatuta ez dagoenean egiten dira; horrelakoetan diseinua eta eragin-aurreikuspena baino ez ditu. Horiek horrela, gizarte-itxuleraren adierazleak aurreikuspenen balorazioan sartu behar da edo, bestela, aurreko urteetan proiektu horrek gizarte-itxulerari dagokionez izandako emaitzatik abiatuta. Gizarte-itxulera baloratuko badugu, analisi are konplexuagoak egin behar ditugu eta, ildo horretatik, erronka ebaluazioa sistematizatzeke erarik onena lortzea da, aplikagarria izan dadin.

4.2. Proiektuak ebaluatzean erabili beharreko parametroak: gizarte-itxuleraren faktoreak

Begirada berriak ez du orain arte erabilitako ebaluazio-eredua indargabetzen, baizik eta zeharkako ikuspegi berri bat erantsi nahi duela kulturaren gizarte-itxulerari buruzko faktoreak kontuan hartu ahal izateko, kanpo-eraginetatik harago.

Kulturaren gizarte-itxuleraren faktoretzat hartutako elementu bakoitzak bere ikuspegia ematen dio egin beharreko ebaluazioari. Ikuspegi horiek, konbinaturik, ebaluazio-eredu berri hau ahalbidetzen dute, eta aldi berean, aztertu beharreko funtsezko alderdiak sartzen dituzte. Proposatutako ereduak **gizarte-itxuleraren faktore** hauek ditu oinarrian:





- **Gizarte-kohesioa eta inklusioa**

Kultura-jarduerak eraginak izaten dituzte gizarte-kohesioari eta inklusioari dagokienez; askotan, neurtzea zaila denez, horiek ez dira behar bezala kontuan hartzen. Dimentsio honetan funtsezko alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste:

- **Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzea.** Kultur jarduerak gizarte-bazterkeria arriskua murrizten laguntzen duten plataformak eskaintzen ditu, gizarte-sare inklusiboak sendotzea ahalbidetzen duten harreman sozialeko espazioak sortzen baititu.
- **Jarduerak parte-hartzaileen egoera fisikoari lotutako sarbide-zailtasunera egokitzea.** Mugikortasun- edo zentzumen-arloko zailtasuna kulturara jotzeko oztopo izan daiteke eta, ondorioz, are ezberdintasun handiagoak sor ditzake. Horrela bada, kultura-proiektuek sarbidea errazteko neurri zehatzak hartzen dituztenean, ondorio handiak izaten dituzte kolektibo horietan, eta neurri berean baloratu behar dira.
- **Kolektiboko kide izatearen sentimendua sortzea.** Kultura-ekintza kolektiboak, taldean egindakoak, kolektibo bateko kide izatearen sentimendua indartzen du, eta autoestimua hobetzen dio kultura-proiektuan parte hartzen duen taldeko edo kolektiboko kide sentitu nahi duenari. Esperientziak partekatzean sareak eta konplizitateak sendotzen dira, eta gizarte-isolamendurako joerak orekatzen dira.
- **Gizarte-aniztasuna.** Kulturako jardueretan eta proiektuetan parte hartzeak askotan ez du egungo gizarte-errealitatea islatzen. Hori dela eta, proiektuek aniztasun hori islatzeko duten gaitasuna gizarte-itzulera gisa baloratu beharra dago.

- **Hezkuntza eta garapen autonomoa**

Kultura-kontsumoaren eginkizun hezigarria alderdi garrantzitsu bat da, baina, kultura-politiken azterketetan kontuan hartzen bada ere, ez da behar bezain argi eramaten adierazleen sistemetara. Haren izaera subjektiboa horretarako muga argia da. Kultura-esperientzia esperientzia pertsonala da, zeinean kultura-kontsumoaren ibilbideak edo jardueran parte hartzen ari denaren prestasun pertsonalak eragiten baitu. Hala ere, gizarte-itzulerako elementutzat hartu behar da honako alderdi hauetan:

- **Trebetasunetan eta sormenaren garapenean.** Sormena gizakiak berezkoa du, eta haren garapenak ahalbidetzen duten plataformak behar ditu. Ildo horretatik, parte-

hartzaileei trebetasunak ematen dizkieten edo aurretik hartutakoak indartzen dituzten kulturako jarduerak edo proiektuak positiboki baloratu behar dira.

- **Interpretatzeko gaitasunean.** Pertsonen inguruko ingurune soziala, ekonomikoa eta kulturala interpretatzea beharrezko tresna da gaitasun kritikoa indartzeko eta, horrekin batera, baita ingurunea bera hobetzeko aukera handiagoa izan dadin ere. Kultura-jarduerak interpretatzeko gaitasun horren gainean eragiten du; izan ere, artearen bitartez, ikuspegi berriak ematen ditu, eta sentiberatasun handiagoa izaten laguntzen du.
- **Arte-adierazpenekiko sentiberatasunean.** Kulturako jardueretan eta proiektuetan parte hartzen duten pertsonak are jarrera irekiagoa izaten dute etorkizuneko kontsumoei dagokienez. Arte-hizkuntza irakurtzeko gako batzuk behar dira, metatze-prozesu baten bidez eskuratzen direnak. Kulturaren kontsumo orok sentiberatasun hori elikatzen badu ere, proiektu eta jarduera jakin batzuek neurri handiagoan bultzatzen dute, arretagunea helburu horretan jartzen baitute.

- **Demokrazia eta parte-hartzea**

Kulturako proiektuen eta jardueren bitartez gizartea berritzeko prozesuak gara daitezke; prozesu horiek parte-hartzearen, demokraziaren eta boluntariotzaren balioak sustatzen dituzte, besteak beste. Era horretan kultura-aldaketak eragiten dira, eta gizartea, oro har, aberasten duten antolaketa-aukera berriak agertzen dira. Kulturako jarduera eta proiektu askok antolaketa-eredu berriekin esperimentatzen dute komuna denak balioa hartzen laguntzeko; horietan elementu hauek nabarmendu behar ditugu:

- **Parte hartzeko eredu berriak eta kultura demokratikoa.** Kulturako erakundeen, proiektuen eta jardueren kudeaketan parte hartzeko eredu berritzaileak gara daitezke parte-hartzaileen inplikazioa laguntzeko. Horrela bada, kultura-jarduerak kultura demokratikoa sustatzen dute diseinuan eta garapenean dimentsio hori kontuan hartzen dutenean.
- **Boluntariotza.** Kultura-proiektuak, tradizioz, boluntariotza sustatzeko plataforma izan dira. Haien eginkizuna horrelaxe hartu behar da, baina profesionalizatzeko gaitasunarekin orekatuta. Boluntariotzak eragin positibo argiak ditu gizarte-

errealitatean, gizarte-sareak ehuntzeko, autoestimua sustatzeko eta elkartrukea bultzatzeko gaitasuna baitu.

- **Gizarte-ekonomia.** Kultura-proiektuen kudeaketa ekonomikoaren ereduak gizartearekiko konpromiso maila jakin bat adierazten du proiektutik bertatik harago. Hala, erakundeak kudeaketan, finantzaketan eta kontsumoan ekonomia soziala eta solidarioa sustatzeko erduetan oinarriturik lan egiten badu, kulturako jardueraren edo proiektuaren zuzeneko ondorioak gainditzeko borondate argia duela jo daiteke.

- **Ingurune fisikoa**

Kultura-proiektu ugari hiri-eraldaketa lagundu dute, horretarako zentraltasun berriak sortuta eta pertsonen eta hiri-, natura- eta gizarte-ingurunearen arteko lotura hobetuta. Kulturak ingurune fisikoetan eraldaketak sortzeko ahalmen handia du, horiek berregokituz eta berrinterpretatuz; horrenbestez, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- **Hiri-berroneratzea.** Hiri-esparru jakin batzuetan kulturako proiektuak garatzea eraldaketaren akuilatzaile izan daiteke, inguruko bizi-kalitatea hobetuta. Hala, kultura-jarduerak hiri-ingurunean dituen eraginak esparru publikoko eguneroko bizi-baldintzak hobetzen dituen gizarte-itzuleratzat hartu beharra dago.
- **Zentraltasun berriak.** Hiri-ingurune bateko zentraltasunek osagai sinboliko argia dute, eta gune jakin batzuetan garatzen diren kultura-jarduerak, ekipamenduek edo proiektuek zentraltasun berriak sortzen dituzte herritarren unibertso sinbolikoan.
- **Naturarekiko lotura.** Adierazpen artistikoak eta natura-inguruneari lotutako kultura-proiektuek laguntzen dute halakotzat balora daitezen, eta ondorioz, haien zaintza eta ezagutza. Kultura-proiektuen gaitasun hori gizarte-itzulera garrantzitsutzat hartu beharra dago, ingurune naturalaren ezagutza eta zaintza sustatzeaz gain, haren balioa nabarmentzea ere bultzatzen baitu.
- **Ingurumen-balioak.** Kultura-jardueretan ingurumena errespetatzeko irizpideak txertatzea eredugarria izaten da parte-hartzaileentzat, eta horren gaineko kontzientzia handiagoa har dezaten laguntzen du.



- **Enplegua**

Kultura-proiektuak garatzen diren ingurune ekonomikoaren errealitate soziolaboralari kulturak egindako ekarpena haren gizarte-itzuleraren dimentsio bat dela ulertu behar da. Kalitateari eta balio erantsiari lotuta lan-merkatua indartzeko kulturak egindako ekarpena garrantzitsua da gizartea garatzeko; betiere, kultura, sormen-sektore gisa, ingurunerik garatuenetan sormen-ekonomiari zentraltasun estrategiko handiagoa ematen dion joeraren barruan dagoela kontuan hartuta. Ildo horretatik, honakoak hartu behar dira kontuan:

- **Enplegua sortzea.** Kultura-proiektuak enplegu-sortzaile gisa eta, ondorioz, haietan parte hartzen dutenen lan-aukera gisa.
- **Enpleguaren kalitatea.** Lan-espazio kalitatezkoak, seguruak eta egonkorak sortzea. Kulturak alderdi horretan egindako ekarpena gizarte-itzuleratzat hartu behar da, balioak ematen baititu testuinguru soziolaboralean.
- **Garapen profesionalerako aukerak.** Kultura-proiektuek parte-hartzaileei garapen profesionalerako aukerak errazteko duten ahalmena gizarte-itzuleratzat hartu behar da.
- **Enpleguko berdintasuna.** Kultura-proiektu baten buru ari diren enpresen edo erakundeen lan-egitura kolektibo desberdinen arteko oreka egotea egiten den gizarte-itzulerari dagokionez baloratu behar da.

4.3. Kulturaproiektuen gizarte-itzulera neurtzeko adierazleen proposamena

Ereduan zehaztutako gizarte-itzulerako faktoreetan oinarriturik, hainbat adierazle proposatu ditugu kultura-proiektuen gizarte-itzulera aztertzeko orduan kontuan har daitezkeen. Proposatutako adierazleek logika bikoitzari erantzuten diote, ebaluazioa egiteko unea zein den. Ebaluazioa proiektu garatu aurretik egiten bada, funtsean, proiektuaren estrategiei helduko diete gizarte-itzuleraren faktoreekin lotuta; garatutakoan egiten bada, berriz, elementu kuantitatiboak eta kualitatiboak elkartzen dira ebaluazioan.



A. Diru-laguntza eskatzen duten proiektuak ebaluatzeko adierazleak

Faktorea: Gizarte-kohesioa eta inklusioa	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzea	Harremanak gizarte-bazterkeria arriskuan dauden herritarrekin lan egiten duten erakundeekin
	Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden herritarrek jardueran parte hartu ahal izateko hartutako neurriak
Egoera fisiko, psikiko edo zentzumenengatik parte hartzeko dagoen zailtasunera egokitzea	Harremanak egoera fisiko, psikiko edo zentzumenengatik parte hartzeko zailtasuna duten kolektiboekin lan egiten duten erakundeekin
	Egoera fisiko, psikiko edo zentzumenengatik parte hartzeko zailtasuna duten kolektiboek jardueran parte hartzeko hartutako neurriak
Kolektiboko kide izatearen sentimendua sortzea	Taldean parte hartzea sustatzeko proposamenak
Gizarte-aniztasuna	Askotariko herritarrek parte hartzeko hartutako neurriak

Faktorea: Hezkuntza eta garapen autonomoa	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Trebetasunak eta sormenaren garapena	Sormena sustatzeko neurri eta proposamen zehatzak
	Proposamenean ikerketa-prozesuak egotea
	Proposamenaren edo proiektuaren originaltasun maila
Interpretatzeko gaitasuna	Gai zehatz batzuekiko edo gizarte osoarekiko espiritu kritikoa sustatzeko hartutako neurriak
	Autokritikako eta autoebaluazioko mekanismoak egotea
Sentiberatasuna arte-adierazpenei dagokienez	Hainbat arte-diziplina egotea
	Harremanak erakunde edo kolektibo artistikoekin
	Arteari buruzko pedagogiako eta trebakuntzako jarduerak egotea



Faktorea: Demokrazia eta parte-hartzea	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Parte hartzeko eredu berriak eta kultura demokratikoa	Beste eragile batzuekin sareak sortzeko hartutako neurriak
	Proiektuz kanpoko kulturako, gizarteko eta herritarren eragileek parte hartzea
	Proiektuaren prestaketan eta kudeaketan parte hartzeko prozesuak egotea
	Egitura horizontalen proposamena proiektua egiten duen erakundearen antolamenduan
Boluntarioria	Proiektuan boluntarioek parte hartzeko hartutako neurriak
Gizarte-ekonomia	Proiektuaren autokudeaketa mailaren aurreikuspena
	Proiektuan elkartasunarekin lotuta hartutako neurriak

Faktorea: Ingurune fisikoa	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Hiri-berroneratzea	Proiektuaren jardun- eta eragin-eremuaren hiri-ingurunea hobetzeko neurriak
	Proiektuak sormen-inguruneak sortzearekin duen harreman maila
	Paisaia babesteko neurriak
Zentraltasun berriak	Hurbiltasuneko ekonomia biziberritzeko neurriak
	Proiektuaren aurretik kultura-erabilerarik ez zuen espazio/ekipamendu bat eraldatzeko proposamena
	Tokiko kultur artistekin eta eragileekin lan egiteko proposamenak
	Turismoa erakartzeko hartutako neurriak
Naturarekiko lotura	Natur ingurunearekin lotutako proposamenak
	Natur inguruneari buruzko jakintzarako hartutako neurriak
Ingurumeneko balioak	Ingurumen-hezkuntza sustatzeko neurriak
	Proposamenaren gaitan ingurumen-balioak egotea



Faktorea: Enplegua	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Enplegua sortzea	Proiektuan lan egingo duen pertsona kopuruaren aurreikuspena
	Erakundearen egitura finkotik kanpo proiekturako kontratatutako pertsona kopuruaren aurreikuspena
Enpleguaren kalitatea	Proiektuan parte hartzen duten pertsona guztiak legez kontratatzea bermatzeko neurriak
	Berdintasuneko lan-baldintzak bermatzeko neurriak
	Kontratatzen den sektoreari eta jarduerari dagozkion lan-hitzarmenak aplikatzea bermatzeko neurriak
Garapen profesionaleko aukerak	Proiektuaren jarraitasunerako neurriak
Enpleguko berdintasuna	Generoko ikuspegia kontuan hartuta kontratatzeko neurriak

B. Garatutako proiektuak ebaluatzeko adierazleak

Faktorea: Gizarte-kohesioa eta inklusioa	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzea	Proiektuan parte hartu duten gizarte-bazterkeria arriskua duten biztanleekin lan egiten duten erakundeen kopurua
	Gizarte-bazterkeria arriskua duten biztanleekin lan egiten duten erakundeen proiektuaren balorazioa
	Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden parte-hartzaileen %-a
	Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden biztanleei zuzendutako jarduera espezifikoaren kopurua
Egoera fisiko, psikiko edo zentzumenengatik parte hartzeko dagoen zailtasunera egokitzea	Egoera fisiko, psikiko edo zentzumenengatik parte hartzeko zailtasuna duten kolektiboekin lan egiten duten erakundeen balorazioa
	Egoera fisiko, psikiko edo zentzumenengatik mugak dituzten parte-hartzaileen %-a
	Zailtasun fisikoak, psikikoak edo zentzumenenak dituzten kolektiboaren sarbidea hobetzeko jarduketaren espezifikoaren kopurua



Faktorea: Gizarte-kohesioa eta inklusioa	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Kolektiboko kide izatearen sentimendua sortzea	Taldean parte hartzen dutenen %-a
	Parte-hartzaileen ebaluazioa jarduerak jakintza-sare berriak sortzeko duen ahalmenari dagokionez
Gizarte-aniztasuna	Aldea jarduerako parte-hartzaile taldearen eta garatzen den gizarte-ingurunearen ezaugarrien artean.

Faktorea: Hezkuntza eta garapen autonomoa	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Trebetasunak eta sormenaren garapena	Parte-hartzaileen sormena sustatzeko egindako jarduera kopurua
	Parte-hartzaileek proiektuan izandako sormen-esperientziari buruz egindako balorazioa
	Proiektuan zehar egindako ikerketa-prozesuaren balorazioa
	Egindako proiektuaren originaltasun mailaren balorazioa
Interpretatzeko gaitasuna	Egindako espazio kritiko edo eztabaida kopurua
	Espazio kritiko edo eztabaidetan parte hartu duten pertsona kopurua
	Parte-hartzaileek egindako balorazioa, proiektuan dagoen kritikaren gainekoa
	Proiektuaren helburuen betetze mailaren barruko balorazioa
Sentiberatasuna arte-adierazpenei dagokienez	Parte-hartzaileek hartutako arte-ezagutzari buruz egindako balorazioa
	Erakunde edo kolektibo artistikoekin izandako harreman kopurua
	Proiektuak arte-sentiberatasuna sustatzeko duen ahalmenaz erakunde edo kolektibo artistikoek egindako balorazioa
	Egindako arte-trebakuntzako jarduera kopurua
	Guztien aldean trebakuntzako jardueretan parte hartu dutenen %-a



Faktorea: Demokrazia eta parte-hartzea	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Parte hartzeko eredu berriak eta kultura demokratikoa	Beste eragile batzuekin sortutako sare kopurua
	Sortutako sareetan parte hartutako eragile kopurua
	Elkarlanean aritutako gizarte- eta kultura-erakunde kopurua
	Proiektuan zehar egindako parte hartzeko prozesu kopurua
	Parte hartzeko prozesuetan parte hartu duten pertsona kopurua / proiektuan parte hartu duten pertsonak guztira
	Erakundearen antolaketan egitura horizontalak egotea
	Erabakitzeko prozesuetan parte hartu duten langileen %-a
Boluntarioria	Boluntarioen %-a proiektuan parte hartu duten pertsona guztien aldean
Gizarte-ekonomia	Proiektuaren finantzaketa publikoaren %-a
	Proiekturako kontratatutako langabe kopurua

Faktorea: Ingurune fisikoa	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Hiri-berroneratzea	Proiektuaren jardun-eremuan berroneratutako hiri-espazio kopuruaren bilakaera
	Proiektuaren eragin-eremuko sormenezko ekimen, erakunde eta enpresa kopuruaren bilakaera
	Paisaia babesteko jarduketako kopurua
Zentraltasun berriak	Proiektuaren eragin-eremuko saltokien diru-sarreraren bilakaera
	Proiektuaren aurretik kultura-erabilerarik ez zuen espazio/ekipamendu bat eraldatzea
	Proiektuan parte hartu duten tokiko artisten eta eragileen kopurua
	Proiektuaren eragin-eremua bisitatzen duten turista kopuruaren bilakaera



Faktorea: Ingurune fisikoa	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Naturarekiko lotura	Natur inguruneari lotuta egindako arte- eta kultura-jarduera kopurua
	Parte-hartzaileek natur inguruneari buruz hartutako jakintza maila
Ingurumeneko balioak	Parte-hartzaileek hartutako ingurumen-balioen balorazioa

Faktorea: Enplegua	
Aztertu beharreko alderdia	Adierazleak
Enplegua sortzea	Proiektuan lan egin duten pertsona kopurua
	Proiektuan lan egiteko kontratatutako pertsona kopurua
Enpleguaren kalitatea	Kontratu mugagabea duten langile kopurua guztien aldean
	Erakundeko soldatarik handienaren eta txikienaren arteko aldea
	Langile bakoitzari dagozkion lan-hitzarmenak aplikatzea
Garapen profesionaleko aukerak	Proiekturako kontratatutako pertsonetatik lanean jarraitzen dutenen %-a
	Barneko sustapen kopurua
Enpleguko berdintasuna	Emakumeek okupatutako lanpostuen %-a
	Emakumeek betetako koordinazioko edo zuzendaritzako lanpostuen %-a

5. Laguntza publikoetan eredia aplikatzeko gomendioak

5.1. Laguntza publikoen ebaluazio globalean gizarte-itzuleraren faktoreek duten garrantzia

Diru-laguntza eskatzen duten proiektuen ebaluazioan gizarte-itzulera txertatzea lan zaila da, hainbat arrisku hartzea dakarrena; hala, diru-laguntzaren oinarriak eta ebaluatzeko irizpideak aldatu behar dira, ulertzen zailagoak izateko arriskuarekin.

Nolanahi ere, ona da berau txertatzea, horri esker askotan gutxietsita egon arren funtsezkotzat jo daitekeen alderdia kontuan hartzen baitute balorazioek.

Horrenbestez, hauxe da proposamena: ebaluatzeko sisteman gizarte-itzuleraren faktore guztiek ebaluazio osoaren % 25eko garrantzia edukitzea. Horretarako, irizpideak berraztertu behar dira, eta eskaeretan jaso beharreko informazioa zehaztu beharra dago.

Eredu honetan proposatu ditugun gizarte-itzuleraren bost faktoreek eta haien adierazleek ebaluatzeko aukera zabala eskaintzen dute. Kontzeptu aldetik eredu zabala diseinatu dugu, baina zehazteko neurriak hartu behar dira aplikatzeko orduan. Horregatik, komeni da proposatutako faktoreak eta adierazleak erreferentzia gisa hartzea, ondoren diru-laguntzen deialdi bakoitzaren ezaugarrietara eta bilatzen diren helburuetara egokitzeko.

5.2. Eredua laguntza publikoen ebaluazioan aplikatzeko faseak

EAEko kultura-politiken eta -proiektuen ebaluazioan gizarte-itzuleraren adierazleak txertatzeko eredu fase hauetan aplikatu behar da:

I. Aurretiko fasea: pedagogia eta trebakuntza

Kultura-proiektuen gizarte-itzulera baloratzeko adierazleen sistema aplikatuko badugu herri-administrazioek emandako diru-laguntzen kultura aldatu beharra dago. Txosten



honetan azaldu bezala, kulturaren gizarte-itzuleraren analisisa kulturaren balio publikoari lotutako jarrera ideologiko batekin dago lotuta; azken batean, kulturako proiektuen eta jardueraren hainbat eragin baloratzearen eta kontuan hartzearen aldeko apustu bat da, horiek ez baitira agertu ohi diru-laguntzak ematearekin lotutako erabakietan edo ondorengo kontu-ematean.

Kulturako proiektuen gizarte-itzulera baloratzeko ez da aski irizpide eta adierazle berri batzuk eranstea, baizik eta kulturak gizartean duen eraginaren gaineko mentalitatea eta pertzepzioa aldatu behar direla. Hori dela eta, diruz lagun daitezkeen proiektuak baloratzen dituzten arduradun tekniko eta politikoekin pedagogia- eta trebakuntzalan egin beharra dago, eredu berria, aurrerago, haien programak beraiek ebaluatzeko prozesuetan ere txertatzeko. Irizpide berriak aplikatzea apustu politiko handia da, administrazio eta sail guztien lan teknikora hedatu beharrekoa; helburu horrekin, trebakuntzak, balorazioetan kontuan hartu beharreko adierazle berriak azaltzeaz gain, haren aplikazioak dakarren kulturaren balorazio-paradigma berriari ere heldu behar dio.

Trebakuntzako fase hau hainbat tresna eta mailaren bitartez egin daiteke; lehenik, arduradun politikoak trebatu behar dira eta, jarraian, lantalde tekniko osoa.

II. Hasierako fasea: egiaztatzea, hobetzea eta egokitzea

Eredua aplikatzeko hasierako fase honetan sakon aztertuko dira gizarte-itzuleraren faktoreak eta proposatutako adierazleak. Dokumentu honetan lehen proposamen zabal eta inklusibo bat dago, oinarritzat hartu behar dena kulturako proiektuen eta programen gizarte-itzulera ebaluatzeko orduan dauden beharrak eta lehentasunak zabalago eta zehatzago garatzeko. Egiaztatze fase bat ireki beharko da gizarte-itzuleraren faktoreen eta aurkeztutako adierazleen gaineko iritziak eta balorazioak biltzeko, baita proposamenaren planteamendu orokorraren gainekoak ere.

Lehenik eta behin, ereduaren proposamena herri-administrazioetako arduradun tekniko eta politikoekin landu beharko da. Errealitate bakoitzaren esperientziak eta espezifikotasunek eredu zuzentzen eta osatzen lagunduko dute, eta aldi berean, horri buruzko pedagogian aurrera egingo dugu.

Jarraian, kulturako sektore guztien ordezkariekin komunikazio eta eztabaidarako guneak ezarri beharko dira, haien ikuspegiak jakinaraz ditzaten eta ereduari eta haren aplikazioari buruz dituzten zalantzak adieraz ditzaten.

Kulturako eragileekin, publiko zein pribatuekin, egiaztatutakoan, eredu egokitu egingo dugu egindako gogoetei eta balorazioei jarraiki. Xedea ez da egiaztatze-fasearen barruan bildutako guztia eranstea, baizik eta, ereduaren printzipio orokorrak baztertu gabe, erabaki beharko dela zer alderdi, faktore eta adierazle aldatu behar diren behar bezala aplikatu ahal izateko.

Azkenik, ebaluatzeko eredu berri hau martxan jarri aurretik, ereduaren arabera kontuan hartu beharreko faktoreen eta alderdien hainbat haztapan zehaztu beharko dira. Azaldu bezala, faktoreen eta adierazleen hainbat haztapan ezarri beharko dira kultura-proiektuak ebaluatzeko orduan, betiere administrazioak unean-unean finkatutako lehentasunen arabera eta proiektu motaren arabera. Kontuan hartu behar dugu, nolana ere, ereduak zeharkako azterketa bat egin nahi duela; horrenbestez, ezin ditugu adierazle batzuk bakarrik hautatu unean uneko premien edo asmo zehatzen arabera. Haztapanaz baliatuko gara ereduaren eraginkortasun handiagoa lortzeko; hala, behar beste malgutasuna emango diogu haren erabilera proiektu bakoitzaren errealitatera eta testuingurura egoki dadin..

III. Probako fasea: gizarte-itzuleraren adierazleak eranstea diru-laguntzen ebaluazioan

Administrazioari laguntza edo diru-laguntza publikoak eskatzen dizkieten kultura-proiektuen gizarte-itzulera ebaluatzeko eredu inplementatu ondoren egingo da probako fasea. Horrela bada, ebaluazioa kultura-proiektua (zeinarentzat babes publikoa eskatzen ari baita) gauzatu behar duen erakundeak aurreikusitako estrategietan eta eraginetan oinarrituta egingo da. Azterketa diru-laguntza eskatzen duten proiektuak ebaluatzeko eredu ezarritako adierazleen bidez egingo da.

Hauxe proposatzen dugu: balorazio-elementu horiek diru-laguntzen deialdi batean edo bitan jasotzea –horretarako egokiak direnetan–, horiek oinarri hartuta inplementazioaren ondorioak atera ahal izateko.

IV. Garapenaren fasea: gizarte-itzuleraren adierazleak txertatzea laguntza publikoen eta herri-administrazioak buru diren proiektuen ebaluazioan

Laguntza edo diru-laguntza publikoak eskatzen dituzten kultura-proiektuak ebaluatzeko eredu inplementatuz gero, gizarte-itzuleraren faktoreen eta adierazleen egokitze-



premia berriak hauteman ahal izango dira. Diru-laguntzen lerro guztietan sartu aurretik, baina, egokitasuna eta egokiera aztertu beharko dira lerro bakoitzean.

Eredua, diru-laguntzak ebaluatzeko irizpideetan sartzeaz gain, kulturako edozein proiektutan aplikatu ahal izateko ere pentsatu da. Horrenbestez, herri-administrazioek zuzenean egindako kultur programetan eta proiektuetan aplikatzeko prozesu bat egitea proposatzen da programaren eraginak ebaluatzearren, hala abiarazi aurretiko fasean nola gauzatu ondoren.

Eredua aplikatzeko azken fase hori aplikatu ahal izateko, dena den, lantalde tekniko eta politiko arduradunek kultura-arloko proiektuak kulturaren balio publikoan oinarritutako ikuspegi berri honetatik ebaluatu beharra barneratu behar dute.